

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	BEHE-TENTSIOKO AIREKO SARE ELEKTRIKOEN MANTENTZE-LANAK	Iraupena	30
		Baldintzatua	
Kodea	UF0893		
Lanbide-arloa	ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA		
Lanbide-eremua	Instalazio elektrikoak		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Behe-tentsioko instalazio elektriko muntaketa eta mantentze-lanak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Behe-tentsioko <u>aireko</u> sare elektriko muntaketa eta mantentze-	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Behe-tentsioko aireko sare elektriko muntaketa		60
	Laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzioa instalazio elektriko muntaketan eta mantentze-lanetan (zeharkakoa)	Iraupena	30

A atala: GAITASUN-ERREFERENTEA

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0823_2 gaitasun-ataleko LB4 lanbide-burutzapenarekin.

B atala: AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Behe-tentsioko banaketa elektriko aireko sareak osatzen dituzten zatiak identifikatzea, eta horien ezaugarri espezifikoak aztertzea.

E11.1 Euskarrien eta behe-tentsioko banaketa elektriko fatxadaren gaineko aireko sare baten dokumentu teknikoetatik abiatuz:

- Sarean eragina duten instalazioak identifikatzea eta gurutzatze, paralelismo eta hurbiltasunei buruzko araudia betetzen duten begiratzea.
- Sarearen garapenean araudia aplikatu den begiratzea.
- Instalazioko elementuen ezaugarriak aldatzeak edo instalazioaren zatiren baten funtzionamendu okerrak sarearen funtzionamenduan izango litzuzkeen eraginei buruzko hipotesia egitea.

A2: Behe-tentsioko aireko banaketa-sare baten instalazioaren konponketa eta mantentze-lanak egitea, dokumentazio tekniko oinarri hartuta.

E12.1 Instalazio batean eragiketa bat edo mantentze-lanak egin behar direna suposatuz:

- Egin beharreko urratsak adieraztea, ondoko hauek kontuan hartuta:
- Aplikatu beharreko segurtasun-arauak.
- Erabili beharreko prozedurak.

E12.2 Kable bihurrituko behe-tentsioko linea batean, prozedurari jarraituz eta erreminta eta babes- eta segurtasun-ekipo eta -baliabide egokiak erabiliz, eragiketa hauek egitea:

- Instalazio-elementuak ordezkatzeta.
- Isolagailuak ordezkatzeta.
- Linea deskonektatu eta beste sare edo transformazio-zentro bati konektatzen zaiola simulatzea.

E12.3 Kable bihurrituko behe-tentsioko sareetako matxuren kasu praktikoetako diagnostiko eta lokalizazioan:

- Matxuraren sintomak interpretatzea, eta instalazioko elementuekin erlazionatzea.
- Matxuraren kausa posibleen hipotesia egitea, eta deskribatutako eraginen eta haien kausen arteko erlazioa deskribatzea.
- Matxuraren kausa edo kausak hautemateko, esku-hartze plan bat egitea.
- Egin beharko liratekeen proba, neurketa eta egiaztapenenak adieraztea, erabili behar diren prozedura, baliabide tekniko eta segurtasun-bitartekoak zehaztuz.
- Egindako jardueren eta lortutako emaitzen txostena prestatzea.

Edukiak

1. BTko aireko sare elektriko muntentze-lanak eta konponketa.

- Diagnostikoa eta matxurak lokalizatzea.
- Sintomatologia, erabilitako teknikak eta funtsezko ezaugarriak.
- Arauak eta prozedurak. Konpainia hornitzailearen arau bereziak.
- Instalazioen mantentze-lanak egiteko erabilitako tresnak.
- Funtzioa, erabilera eta erabilitako motak.
- Mantentze-lan prediktiboak. Mantentze-lan prebentiboak. Mantentze-lan zuzentzaileak.
- BTko linea baten mantentze-lanak. Neurriak eta kontrolak. Termografia. Lur-konexioaren erresistentzia neurtzea, beste batzuen artean.
- Mantentze-lanen ikuskapenak. Araudiaren arabeko ikuskapena.

2 BTko aireko sare elektrikoaren segurtasun-neurri eta -baliabideak.

- Deskargu-egoeran dagoen instalazioa.
- Urrezko bost arauak.
- Eremu babestua eta lanerako eremua.
- Parametro karakteristikoen kontrola eta neurketa. Neurgailuak eta neurtzeko teknikak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

UF0892 gainditua izan behar du: Behe-tentsioko aireko sare elektrikoaren muntaketa

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Behe-tentsioko instalazio elektrikoaren muntaketa eta mantentze-lanak.